

Diglosiaren ondorioak

Diglosia: “*The coexistence in the same area of a colloquial idiom of an inferior prestige, side by side with a more learned language*”. Gu Euskal Herrian diglosia gorrian bizi gara.

Euskara espainolaren eta frantsesaren ondoan bizi da. Prestigio txikiago du eta alor askotan –administrazioan, justizian, teknikan, osasun kontuetan...– espainola eta frantsesa baino askoz gutxiago erabilia izan da.

Euskara orain arte ez da eskolan eta unibertsitatean sartu.

Gazteek ez dute euskaraz egiten. Zergatik? Diglosian bizi garenez gero, espainolez errazago egiten dutelako. Bermeon, adibidez, lehengo egunean *Deia* egunkariak esaten zuenez “euskararen erabilera %60koa da, nahiz eta gazteriaren herenak baino ez duen ahotan”. Ondarroan ere gauza bertsua gertatzen omen da. Eta beste herri askotan ere bai.

Diglosia hizkuntza galtzearen aurreko egoera da.

Hona *Spektrum der Wissenschaft* aldizkari entzutetsuaren lerrook:

“Gizaldi honetan munduko hizkuntzarik gehienak desagertu egingo dira, ehunetik 70 edo 90”.

Diglosiak dakarren birusa: jendeak hizkuntza nagusiz pentsatzen duela.

Hemen dago koska. Euskal



Herrian, diglosia dela eta, askok eta askok espainolez pentsatzen dute. Horregatik idazterakoan maiz euskal estruktura pikutara igortzen dute. “Begiz jo” eta “begitan hartu” nahasten dituzte, “kontu hau beste horri lotu behar diogu” idatzi beharrean, “beste horrekin” idazten dute, edo “mutil nafarrak” (zuzen “nafar mutilak”), edo “astean zehar” (“aste barruan”; sekula ez dute baserriarrek eta gure gurasoek zehar denborari lotu) edo “*eske* nik esan nion”.

Problema pentsatzean dago. Gero eta gutxiago dira euskaraz pentsatzen dutenak.

Zazpi probintzietako baserriarrek eta Azpeitia bezalako herritan bizi direnek euskaraz pentsatzen dute. Horien euskara zinez oso ona da, estruktura errespetatzen dutelako, espainolezko edo frantsesezko hitz piloak sartu arren. Lexiko arrotzak ez dio hizkuntzari kalterik egiten.

Bizkaiera, erdal hitzak erabiltzen dituelako, purista batzuek gutxietsi egin dute. Ez dakite linguistikaz gauza handirik. Bizkaieraren estruktura bikaina da. Non egiten da Eibarren baino euskara hoberik?

Frantsesez pentsatzen duenak ez du sekula alemanez ongi idatziko. Ez eta espainolez pentsatzen duenak euskara zuzena erabiliko. Estrukturan hutsak egingo ditu. ■

◀

Bizkaiera, erdal hitzak erabiltzen dituelako, purista batzuek gutxietsi egin dute. Ez dakite linguistikaz gauza handirik. Bizkaieraren estruktura bikaina da. Non egiten da Eibarren baino euskara hoberik?

▶

HIRUKO TXIKIAN

Joxemari Ostolaza

Urruñan



Eraiki zuen etxea. Urruñen bertakotzeko frantsesera zuen ondasun. Bertako hautetsia izatea erabaki zuen zubitzat. RPRko zerrenda aurkitu zuen lanabes. Eskuindarra eta frantsesa Euskal Herrian. Ez zen tronpatu. Iruñen espainola, Urruñan frantsesa. Euskadi erabili zuen arrakasta soziala lortzeko, EAJren ingurutan. Eta Rodriguez de Ibarren eremuan, Espainiako hegoaldean norbait izateko balio izan zitzaion. Euskadin lapurtutako herritarren sosa zituen irudi, bertako herritarren errespetu. Han eraiki zituen aberats-bideak, kanpoko jendeak aisialditan utzitako diruez Euskadin lapurtutakoa biderka-

tzeko. Eta bertakoak zerbitzari, ongiletzat zuten, lanpostu sortzailetzat. Orain Martuteneko kartzelan da, lapurretak ogibide argizat daukan jendez inguratuta. Nonahi bertakotzeko era ezberdinak daude. Urruñan ere bai. Euskal Herrian bizi zaitezke pozik eta ongi. Ere mu urria da eta behartsua. Nondik eraman ez dago, non eman bai. Zuretik ematen baduzu, arrakasta ziurra duzu eta lagun leialak ondasun. Euskal Herriari Bai esan diogu hemen, EAJk Frantziari UDF aukeratu duen bitartean. Bravo ez zen tronpatu. Eta Euskal Herri honetatik preso daudenak ez zuten Bravoren bertakotzea hautatu. Ez gaudela mundu berean, ez dugula mundu bera xede. ■